



BARREN  
TOKIKOM

# Sutegiko gazteen txinpartak





## Iñigo Lazkano eta Beñat Larrañaga, BASQUE STAYko kideak

*“Etxejabeak ez du ezer egin behar, bakarrik lehen egunerako etxea garbi eta hutsik utzi”*

### ■ Zer da BASQUE STAY?

Etxe jabe partikularren epe motzeko erreserbak lortzeaz arduratzen den enpresa gara. Apartamentu, pisu zein txalet jabeek ematen diegu zerbitzua. Sarreraz (*check in*) eta garbiketa-mantenuaz geu arduratzen gara. Horri esker, etxe jabeak ez dauka ezer egin beharrik, gu arduratzen baikara guztiaz. Hori da gure zerbitzuaren berezitasun nagusia.

### ■ Etxean arazoren bat suertatzen baldin bada, adibidez, bezeroek giltzak galdu badituzte edo bat-batean ur berorik gabe geratu badira, etxejabea arduratu behar al da konponketaz?

Ez! Gu arduratzen gara etxe horren inguruan sortzen diren gaiez. Etxejabeak ez du ezer egin behar, bakarrik lehen egunerako etxea garbi eta hutsik utzi.

### ■ Eta horrelako arazoaren konponketak nork ordaintzen ditu?

Kasu bakoitza aztertzen da. Adibidez, telebista puskatzen bada, altzaritik erori delako, bezeroak ordaintzen du eta badaukagu hori ziurtatzeko metodoa. Baina bestalde, adibidez, bapatean uraren galdaran matxura bat badago, etxearen gai propio bat dela ulertzen da eta hori etxejabeak ordaindu behar du, epe luzeko alokairu arrunt batean gertatzen den bezala. Giltzak galdu baldin badituzte, bezeroak ordaindu behar du, jakina.

### ■ Noiz hasi zineten honetan?

BASQUE STAYren ideia 2014ko martxoan jaio zen. Irailean enpresa moduan inskribatu ginen eta lehen etxea 2015eko apirilean ipini genuen alokatzeko.



### ■ Eta zer moduz joan da?

Lehen etxearen iragarkiaipini genuenetik, lehen erreserba sartzera bi ordu bakarrik pasa ziren eta egun horretan bertan sartzeko zen gainera! Hortik gaur arte ez gara geratu. Beraz, oso ondo joan dela esan genezake.

### ■ Zein da zuen aktuazio eremua?

Momentuz Gipuzkoako kostaldean dauden sei herritako hogeitxetarik gabiltza. Eta kostaldea esatean, Elgoibar kostalde bezala ulertzen dut. Guretzat Debatik urruti dago baina Houstongo familia batentzat, Elgoibar *primera línea de playa* da! Gainera, ez dugu inongo arazorik Lekeitio, Mundaka edo Bilboko etxeekin gauza bera egiteko. Oraingo ez zaigu suertatu horrelako etxejaberik.

### ■ Eta zer kobratzen du BASQUE STAYk bere zerbitzuengatik?

Guk lorturiko diru-sarreraren ehuneko batekin geratzen gara. Hau da, ez dugu kantidadetara finkorik kobratzen. Horrela, guri ere interesatzen zaigu etxeak ongi funtzionatzea, horren arabera kobratuko baitugu.

### ■ Edozein etxe hartzen duzue edo exigentzia batzuk daukazue?

Edozein etxe ez, baina momentuz inori ez diogu ezetz esan. Etorri zaizkigun etxejabe denekin iritsi gara akordio batetara. Kasu batzuetan, etxeak erreforma bat behar izan du eta erreforma hori nola finantziatu adostu izan dugu. Hori bai, eskatzen dugu guri etxea garbi eta objektu pertsonalik gabe uztea. Hau da, nobelak, paisaien argazkiak, eta abar bai, baina argazki pertsonalak, arropak, etab. ez.

### ■ Urte osoarako libre izatea exijitzen al duzue?

Ez. Dударik gabe, BASQUE STAYrentzat interesgarriena urte osoan zehar etxea libre izatea da baina badaukagu kasu batzuk, non urtean zehar ikasleei alokatzen zaien etxea eta uztaila eta abuztuan gure esku geratzen diren. Bestalde, beste batzuetan, etxejabea bera joaten da etxe horretara urteko epe batean, adibidez, abuztu osoan, eta urteko beste 11 hilabeteetan libre geratzen da. Lehen esan dudan bezala, malguak gara eta etxe jabearen beharretara egokitzen gara.

# basquestay



www.basquestay.com

info@basquestay.com

606 747 756

Apartamentu baten jabe bazara, alokatu eta diru iturri bilakatu



GARAZI AYESTA



## “Batzuetan kanpotik botatako loreak behar izaten ditugu barrura begiratzeko”

**M**omentu honetan, hau irakurtzen zabiltzala, kontsumitzaile estatubatuar bat euskal film bat ikusten dabil. Jakin badakizu, Nora, *Loreak* filma Oscarren lasterketan sartu dela. Ikusi al duzu filma? Goxoa oso, hunkigarria eta, modu berezi batean, garrantza.

Aurten Oscarretan Espainia ordezkatu duen filma *Loreak* da, hain zuzen. *Loreak*, euskaraz. Petalo biziak hizkuntza zaharrean. Euskal zinema badoa indarra hartzen, itxuran. Oscarretan bere postua lortu dezake *Mineritak* ere, beste euskal ekoizpen batek.

Badirudi euskal zinema garasika ibili dela eta, poliki-poliki, honen oihartzunak indarra hartu duela; forma, mugimendua. Etxetik irten gabe, bertako zinema aretoak ere gainezka ikusi ditugu,

denok ere euskal sortzaileen ekoizpenak kontsumitzeko irrikitan. *Amama* ere gogor dabil, emozioz beteriko istorio ttipi baina aldi berean erraldoia.

Polita da ikustea nola dagoen harro euskal hiztuna bere hizkuntzaz, nola ikusten duen, poliki-poliki, euskal ekoizpenak badoazela hazten eta kalitate ikaragarria erakusten ari direla. Ez dut esan nahi orain arte lan paregabe egon ez denik gure artean, asko egon direlako, baina batzuetan kanpotik botatako loreak behar izaten ditugu barrura begiratzeko. Baina tira, garrantzitsuena da azkenean jarri garela gureari begira, gureaz harro. Antza, euskal zinema pausu indartsuz dator... ez al duzu uste, Nora?



NORA HADI



## “Euskal zinematik oso produkzio murrizta izaten jarraitzen du”

**A**itortu behar dizut biluzik harrapatu nauzula oraingoan, Garazi, ezer gutxi baitakit euskal zinemaz. Hala ere, ezin da ukatu publikoak begi onez jaso dituela aipatu dituzun filmak.

*Loreak* berezia baino, ederra dela esango nuke, estetikoki ederra. Agian iraultzailea ere bai. *Amama* aldiz, kalitatea dela esango nuke.

Ondo esan duzun moduan, badirudi poliki-poliki zinea sortzen ari garela denon artean, baina euskal zinematik oso produkzio murrizta izaten jarraitzen du.

Modu batean "salbuespen" iruditzen zaizkit pelikula hauek, Garazi, sortu diren pelikulen artean pantailara iristea lortu dutenak

izan direlako.

Zinean ikusten ditugun pelikula gehienak amerikarrak zein europarrak izan ohi dira, euskaraz nahiz euskararatuak ikusteko aukerak oso txikiak izanik.

Bai zinea eta bai Euskara gustuko duenak eskertuko luke aukera hauek handituko balira.

Lehengora itzuliz, ez da erraza Oscarretara iristea ditugun baliabide eta diru zailtasunak kontuan hartuta eta, beraz, zoriontzekoa da.

Garazi, ez dakit zer den lore bat zuretzako, baina argi daukat nora bidaliko zenukeen oraintxe bertan lore sorta handi bat, hotz handia egiten duen leku batera, bihotz handi batek jaso dezan.

IÑAKI ODRIOSOLA

Elgoibar 1936 taldekoa



**P**oza hartu nuen joan zen astean, Iruñean, Conde de Rodezno plaza ize nez aldatu dutela ikustean. Konde hau, frankista sutua, 1940-49 artean Nafarroako Aldundiko lehendakariordea izan zen, eta hainbat eta hainbat nafarren fusilatze agindua emandakoa, 1936ko estatu kolpean, honek eragin zuen gerran, eta ondorengo diktaduran.

Gezurra badirudi ere, espainiar Estatuak, Oroitzapen Historikoaren Legea 2007an onartu du, orain zortzi urte. Diktadorea hil ondoren, 1975etik aurrera, Trantsizioa deitu zioten aldi hartan, irabazleek euren buruak amnistiatu zituzten, eta aurreko garaian gertatutakoa ahaztea legeztatu zuten.

Belaunaldi bat igaro arte ezin izan da, berriro, gaia ukitu. Irabazle haien ondorengoak, agintean jarraitzeko, demokrata bihurtu ziren, Estatuaren aparatu guztietan, botere ekonomikoan eta komunikabideetan txertatuta. Gaurdaino.

Berrogei urte eta gero, azkenean, zer gertatu zen jakin eta azaldu nahian hasi da jendarteak. 2007ko legeak, lehenengo aldiz, onartzen ditu gerra eta ondorengo diktadura garaian indarkeria eta jazarpena jasan zutenen eskubideak, eta neurri batzuk hartzea, horiek babesteko.

Lege honek lantzen dituen ildo nagusiak hauexek dira: Frankismoaren epaiketa sumarioen bidegabekeria; hobi komunak lokalizatu, identifikatu eta ba-

besa emateko asmoa; ikur frankistak kentzeko ildoak; errepresaliatuentzako laguntzak; Valle de los caídos-en bilakaera eta garapen despolitizatua; brigadista internazionaletan borrokatu zutenei laguntzak; memoria historikoaren dokumentazioa gurenean sorrera, e.a.

Sinbolo frankistek buruz, esaterako, legeak zera dio, diktaduraren errepresioa, gerra zibila eta altxamendu militarren goraiapamenerako dauden ikurrak (plakak, insigniak, ezkuak, edo beste objektuak, bereizgarriak) espazio publiko eta erakuntzetatik kendu beharko direla, ez bada legeak babestutako monumentu artistiko-erlijioak (eliza edo tenpluak).

Horregatik, Rodezno kondearen kalleko izena kentzea, Oroitzapen Historikoaren Legea aplikatze adibidea izan delako ere poztu naiz. Elgoibarren badi-tugu horrelako ikurrak (plakak, gurutzak), baina, egunerokoa, ez gara konturatu ere egiten. Eta badaukagu gure Rodezno kondea, herri erdian etorbideari izena emanez. Noiz arte?

*“Elgoibarren badugu gure Rodezno kondea, herri erdian etorbideari izena emanez. Noiz arte?”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Suskaltasunaren Erakundeak

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)  
Publizitatea: 943 743 704 - [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio, Leire Alberdi **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:

elgoibar  
1936-2024

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► LIBRE ASTEBURUA

Ohikoak bihurtu zaizkigu euskal herritarren aurkako epaiketa politikokoak. Amaitzen ez den gupil horretan, azaroaren 3an hasiko da Segurako sare-kadan atxilotuen aurkako epaiketa, eta tartean da Joseba Zinkunegi elgoibartarra ere, beste 34 kiderekin batera. Ez gara ordea isilik geratuko: orain arte bezala epaiketa politikokoak salatu eta eskubide zibil eta politikokoak defendatu nahi ditugu.

Ildo horretan antolatu da Libre asteburua azaroaren 14 eta 15erako, eta Elgoibarren ere zenbait ekimen eramango ditugu aurrera. Testu honi atxikimendua ematen diogunok\* auziperatuei elkartasuna adierazi eta eskubide zibil eta politikoen defentsarako nor bere konpromisoa hartzen dugu.

Hortaz, deia egiten dugu asteburuan Elgoibar laranjaz jatzeko: plazan, kalean, tabernetan... eta baita Karakateko tontorrean ere. Azaroaren 14an izango da Karakateko igoera ere, eta eskubide zibil eta politikoen aldeko aldarriak bertan presente egon behar duela deritzogu. Horregatik, deia egiten diegu bertara hurbilduko direnei, izan korrikalari edo ikusle, zerbait laranjarekin jantzita agertzeko: zapia, kamiseta, txapela...

Era berean larunbatean bertan, azaroak 14, eguerdiko 13:30ean Plazan egingo den kontzentrazioan eta herri argazkian parte hartzeko gonbidapena ere luzatzen dugu.

Elkartasunetik konpromisora, Elgoibar Libre!

*\*Testu honi Karakateko Igoeran parte hartuko duten korrikalari hauek eman diote atxikimendua: Iñigo Lariz, Gorka de la Horra, Julia Quintana, Arkaitz Bernedo, Joanes Goitisoló, Nerea Lendinez, Ainhoa Lendinez,*

*Imanol Goñi, Arkaitz Irureta, Edu Uribe, Iban Murua eta Jabi Dominguez.*

### Elgoibar Libre taldea

### ► KANTU EGUNA

Elgoibarko Kale Kantariok eskerrak eman nahi dizkiegu urriaren 31ko Kantu Eguna posible egin zuten guztiei. Alcorta Forging Group, Armueta Harategia, Eizagirre Okindegia, Beristain Logistika, Jasone inprenta, Elgoibarko Udala, Musika Eskola, Haritz Euskal Dantzari Taldea eta Kirkili. Nola ahaztu beraien denda edo tabernetan gure zapiak salgai jarri zituzten Eizagirre Okindegia, Armueta Harategia, Muramendiaraz gozotegia, eta Jai Alai, Iturri, Kaia, King-Kong, Orbea, Gabi, Tantaka, Viento Sur, Txarriduna, Salento, Malape eta Iriondo tabernei. Baina batez ere, kantura edo bazkari-tara gerturatu zineten guztioi, zuek gabe eguna aurrera ateratzea ezinezkoa izango bailitzateke. Nahi duzue-nean, kaleak kantuz betetzen ikusiko dugu elkar!

Esker hau aitzakiatzat hartuta, Euskararen egunerako egingo den lipdub-a grabatzera gonbidatu nahi ditugu Elgoibarko kantu zale guztiak. Hilaren 28an elkartuko gara betiko lekuan, eguerdiko hamabietan. Aurretik, hilaren 21ean, egingo dugu entsegua, herritar guztiok batera.

### Elgoibarko Kale Kantariak

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakunde zuzenduniko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelez datoren eskutitz argitaratuko.

## Errespetuzko bizikidetzaren alde bat egin dute Udal alderdiek Memoriaren Egunean



**M**emoriaren Eguna izan zen asteartean, azaroaren 10ean. Elgoibarko Udalak "biktimei zor zaien egia, justizia eta erreparazioa" eskatzeko adierazpena kaleratu zuen. Era berean, biktimen senideek, Udal ordezkariak eta hainbat herritarrek elkarreteratzea egin zuten.

Memoriaren Egunean, Elgoibarko Udalbatzarra osatzen duten alderdi guztietako (EAJ, EHBildu eta PSE-EE) ordezkariak biktimen senideen ondoan izan ziren, Giza Eskubideen parkeko Gernikako Arbola ondoan. Ane Beitia alkateak lore sorta bat laga zuen arbolapean eta biktima guztiak gogoratzeko minutu bateko isilunea egin zuten. Ondoren, adostutako adierazpen instituzionala jendaurrean irakurri zuten. EH Bilduko Jose Luis Ibartzabalek irakurri zuen euskaraz eta PSE-EEko Nerea Alustizak gaztelaniaz.

Horren ostean, ekitaldira joandako biktimen senideei Gernikako Arbolaren kimu original bana oparitu zieten. Angel Berazadi Uribe, Ramon Baglietto Martinez, Jaime Arrese Arizmendiarieta eta Francisco Javier Zabaleta Aizpitarteren senideak izan ziren ekitaldian. Bideoa [barren.eus](http://barren.eus) webgunean ikus daiteke.

### Adierazpen instituzionala

Hona hemen, Memoriaren Egunaren harira, Elgoibarko Udalak adostutako adierazpen instituzionala:

*"Giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktima guztiei zor dizkiegu egia, justizia eta gertatutakoa ez errepikatzeko bermea. Egindako mina aitortuz eta giza duintasunaren, pertsonen eta pertsonen dagozkien giza eskubideen errespetua beste edozein kausa edo ideia politikoren gainetik, baita Estatu arazoaren gainetik ere, dagoela onartuz, etorkizunean, bakea eta bizikidetzaren eraikitze beharrezkoak diren oinarri sendoak jarriko ditugu. Eta guztion artean eraiki behar ditugu oinarri horiek, ez baitago inor sobera. Horregatik, gure herrian, 'Elgoibar, bakea eraikitzen' ekimenaren bitartez eta herritarren partaidetza oinarritzat harturik, bakean, giza-eskubideen kulturaren eta elkarrenganako errespetuaren eta onespenearen oinarritutako bizikidetzaren sustatzeko konpromisoa hartu dugu".*

## Ertzaintzak landa-patrula jarri du martxan eskualdean

Eibarko ertzain etxeko agenteak Debabarreneko landa-ingurua patruilatzen hasi dira. Joan den urriaren 26an jarri zuten martxan landa-patrula. Harrezkero, herritarrek babesteko unitateko agenteak Debabarreneko landa-ingurua patruilatzen ari dira, uniformeak jantzita eta Ertzaintzaren bereizgarriak dituzten ibilgailuetan. Herriguneetatik aldentuta bizi diren herritarrei Ertzaintzaren zerbitzua gerturatzea da patruila horien helburu nagusia.

Eibarko ertzain-etxearen arabera, baserrietara eta isolatutako etxetara bisitak egingo dituzte poliziek, eta bizilagunekin berba eginez, izaten dituzten arazoak antzeman eta konponetzea izango da euren helburua.

## Arkaitz Egaña, Euskadiko Ehiza Xehetxapelak

Euskadiko Ehiza Xehetxapelak irabazi du Arkaitz Egañak hirugarrenez (jarraian lortzen duen bigarrena). Sol txakurrarekin zazpi eper ehizatu zituen. Bigarren sailkatu zen Mikel Gimenezek baino bi gehiago.

Horrenbestez, Espainiako ehiza xehetxapelketarako finalerdietarako sailkapena eskuratu du ehiztari elgoibartarrak. Iaz txapelakondunorde izan zen txapelketa horretan, eta 2012an titulu eskuratu zuen. Iban Rogel elgoibartarrak ere hartu zuen parte Euskadiko txapelketan eta titulu eskuratu zuen junior kategorian.





## Zinkunegi babesteko eta epaiketa politikoak salatzen dituzte ekitaldiak antolatzen dituzte biharko



**M**adrilgo Auzitegi Nazionalak ezker abertzaleari lotutako 35 pertsona epaituko ditu abenduaren 3tik aurrera, tartean Joseba Zinkunegi elgoibartarra. Hamarna urteko kartzela zigorra eskatu du guztientzat. Auzipetu guztiei eta bereziki Zinkunegiri elkartzasuna adierazteko ekitaldi sorta antolatzen du Libre Elgoibar taldeak zapaturako.

Epaiketa politikoen kontrako aldarria Elgoibarko kaleetara eraman nahi du talde honek. Eskubide zibil eta politikoen defentsa nabarmendu du. Hori dela eta, asteburuan laranjaz jantzeko deia egin du. 13:30ean kontzentrazioa egingo dute Eskubide zibil eta politikoen defentsan, *Zinku eta besteak libre* lelopean.

Joseba Zinkunegi 2008ko otsailaren 11n atxilotu zuten, ezker abertzalearen egitura politikoa desagiteko Segurako sarekatatik lau hilabetera. 2010eko otsailan irten zen kalera, politikan jarduteko debekuekin. Epaiketa 2015eko urtarrian egingo da, baina atzeratu egin zen, defentsako abokatuak atxilotu egin baitzituzten epaiketa hastear zela.

## Elgoibarren kokatuko diren enpresentzako diru laguntzak eskatu daitezke azaroan



Elgoibar Ekinean izeneko funtsa jarri du martxan Udalak, Elgoibarren kokatuko diren enpresa proiektuak diruz laguntzeko. Elgoibarren enpresa berriak jartzeko asmoa duten ekimenak sustatu eta diruz lagundu nahi ditu udalak. Azaroaren 30ean amaituko da laguntza eskatzeko epea.

## Gure Esku Dago ekimenaren gogoeta

Elgoibarko Gure Esku Dago taldeko kideek ehun lagun pasatxoren ekarpen eta iritziak jasotzen dituzte, *Eskura* prozesuaren baitan. Aurreko zapatuan (azaroak 7) bilera egin zuten, Gure Esku Dago dinamikaren egitekoaz, jardueraz eta antolamenduz gogoeta egingo.

Elgoibarren, ekarpen kopururik handiena jarduerari lotutakoa izan zen. Herri galdeketa inguruko puntua izan zen eztabaidatuena. Gehien ustez, herri galdeketa baten kasuan, herri guztietan galdera bera egin beharko litzateke.

Horrez gain, antolamenduaren barruan, egitura juridikoa, barne-antolamendua eta finantzazioa ere aztertzen zituzten. Gai honetan, hainbat zantza sortu ziren eta guztiak azaroko Batzar Nagusira eramateko erabakia hartu zen.

Izan ere, ez da oraindik amaitu *Eskura* prozesua. Herriz herri gogoeta egiten ari dira eta puntu horiek guztiak azaroaren 21ean, Gasteizen, 10:00etatik 14:00etara egingo den Batzar Nagusian argituko eta bozkatuko dira. Aurrerago emango dute nazio mailan adostutakoaren berri eta Gure Esku Dago ekimenaren ekintza planaren berri.

Elgoibarko GED taldeak eskerrak eman dizkie prozesu honetan lan egin duten guztiei.



# Sutegixa: su txikian egosten ari diren asmo gazteen gunea



**Sutegixa da Elgoibarko gaztetxearen izen berria eta asmo berriekin datoz Gazte Asanbladako kideak ere. Su txikitik hasi eta pixkanaka ahalik eta handiena osatu asmoz hitzez eta irudiz jantzi nahi dute gaztetxea. Giro epel batean gazteen ideiak landu eta ahal den heinean kanpora zabalduz ostiraletan elkartzen dira Gazte Asanbladakoak eta beren tertuliatik atera dituzte guri kontatu beharrekoak. Gazteen jarrera kritikoa eta alternatiboa hauspotuz, barruan duten gogo bizitzeko hainbat ekintza berri antolatu dituzte.**

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



**F**orja zegoen garai batean orain gaztetxea dagoen tokian, Sutegia, alegia. Burdina lantzeko tresna zen forjako matxinoa goitik behera aritzen bazen ere gaztetxeok behetik gora dihardute lanean, su txikitik handira. Elgoibarko gaztetxeari, beraz, nortasuna eman nahian, Sutegixa izena jarri diote. “Sutegixa hitzak indarra dauka, suak baduelako indar eraldatzailea. Aldi berean, suaren inguruan bilduta egotea denoi gustatzen zaigu eta espazio goxoaren sentazio hori adierazi nahi izan dugu. Garai batean espazio honetan egiten zen lanarekin lotuz jarraikortasuna ematea, baina era berean berrituz”, esan dute Gazte Asanbladan.

Jarraikortasun eta berrikuntza uztartuz ikasturte honetarako ekintza txikiekin hasi dira asanbladako kideen interesetatik abiatuta. Batetik, film eta dokumental emanaldiak eta literatura tailerra bestetik. Bazen zinema gaiak landu nahi zituen talde bat eta kide bakoitzak astean filma bat aukeratzeko ardura du. Ostiralero *Zinero Goritan* izenpean pelikula bat eman ondoren tertulia egingo dute filmaren gaia landuz.

Beste batzuk literatura lantzeko gogoz zeuden eta horretarako

espazio aproposa iruditu zitzaizen gaztetxea. “Elgoibarren badaude beste irakurketa talde batzuk, Udal Liburutegikoa, esaterako, baina gazteen neurriko zerbait eta gazteen interesetatik abiatutakoa egin nahi genuen. Filmek eta liburuek ez daukate zertan gazte ikuspuntua izan beharrik, baina saiatzeko gara kritikoak edo hausnarketarako bidea irekiko dutenak izan daitezke. Hala ere, izan daitezke besterik gabe gustatzen zaizkigulako eta denborapasarako besterik gabe aukeratu ditzakegunak”. Irakurketa taldean parte hartzen dutenek hilabetean liburu bat aukeratu dute denon artean lantzeko. Lehen hitzordua azaroaren azken zatuan da eta Kafkaren *Metamorfosia* irakurriko dute “hilabetean liburu bat ez da asko eta gainera saiaturako gara ez daitezke oso sendoak izan”.

Jarraikortasuna mantentzea da asanblakoen asmoa eta horretarako film emanaldiak eta literatur tailerrak laguntzen diete gazteen gogoia etengabea izaten. “Bazegoen horretarako beharra eta interesgarria izan daiteke ez soilik noizean behin antolatutako gauzak egitea, baizik eta erabilera iraunkorra ematen jarraitzea gaztetxeari. Gaztetxea ekintza zehatzetarako baino ez da zabal-



tzen, baina orain sariago”.

Irudipena dute beti daudela begira edo zain jendea noiz etorriko eta “momentua iritsi da gauzak txikitik egin behar badira hala izan behar dela pentsatzeko, eta epe luzera begirako planteamenduarekin. Jarraikortasuna emanez gero, espero dugu dinamika hasiko dela itxura hartzen, jende berria eta indar berriak biltzen eta horretan jarraitzeko asmoa dugu frustrazioetan erori gabe”.

### ESPAZIO KRITIKO ETA ALTERNATIBOA

Gazte asanbladan hamar lagun elkartzen dira batez beste eta gaztetxean ekintzen araberakoa da jende kopurua. Gabon Zaharretako erromeriara, esaterako, ohikoa baino jende gehiago gerturatzen da. Asanbladakoen hautua da ekintza txikitatik abiatzea. “Jendea hurbiltzen bada ondo, eta bestela izan dadila guk gozatzeko eta lantzeko zerbaite. Nahiz eta epe motzera fruiturik ez ikusi uste dugu epe luzera eduki dezakeela eragina herrian. Gauzak su txikian kozinatzen hasteko asmoa daukagu”. Bide batez esan nahi izan dute parrandarako egun zehatzez aparte, badagoela Elgoibarren beste ekintza batzuetarako gune bat. “Espazio kritikoa eta alternatiboa da, kontzientziak astintzeko saiakera egiteko gunea. Parranda ondo dago eta guri ere gustatzen zaigu, baina ez dadila horretan bakarrik geratu”.

Gaur egun, 16tik 30 urtera bitarteko jendea ibiltzen da gaztetxearen bueltan, gehienak 16 eta 19 urte artekoak. Baina, “gazteen gunea izan arren ez dugu adin mugarik jartzen eta gure ateak beti daude zabalik ekintzetan parte hartzeko. Ekintzen arbera denetariko jendea sartzen da. Aniztasuna ere nahi dugu”. Gaztetxea kritikoa eta alternatiboa izan nahi duen espazioa den heinean ardura horiek dauzkan jendea gerturatuko dela uste dute. “Jarrera kritiko nahiko ahula sumatzen dugu gazteen artean eta gure asmoa da gure hausnarketak lantzea eta gure kritiketan sakontzea, baina era berean herriko jendearen kontzientziak ere astintzea eta zoru kritikoa garatzea”. Askotan teoriarik dauzkaten ideiak gaztetxean praktikara eramaten saiatzen dira “ekintza guztietan ikuspegi kritiko hori txertatuz; generoari buruz, hondakinen kudeaketari buruz...”.

### TALDE ZABALA

Herriko gazteak gaztetxera gerturatu eta ikuspegi kritikoa hedatzeko, aurten saiakera berri bat egin dute. Hainbat jendek ezin du asteroko asanbladetara joateko konpromisoa hartu eta hori ikusita talde zabalagoa antolatzen saiatu dira lanerako prest dagoen jendearekin. “Esaterako, jendea prest dago txandaren bat egiteko, gaztetxea garbitzeko edo hitzaldiren bat antolatzeko. Jende horri ere aukera eman nahi diogu. Bakoitza bere baldintzetatik abiatuta, denok ezin baitugu konpromiso maila bera hartu.



Sortu berria da taldea eta forma ematen ari gara”.

Hala ere, gaztetxean egiten diren gauzen berri eta hitz egiten diren gaiak buruzkoak kanporatzeko beharra ere sumatu dute eta besteak beste sare sozialak erabiltzen dituzte horretarako, “beti ere hortara mugatu gabe, noski”.

Gazte Asanbladakoak kontziente dira momentuan inguru mugatu batetara iristen direla, mugatua dela beren eragin eremua, “baina Elgoibarren oso elkarre gutxi dago autogestiotik abiatuta eta inolako laguntzarik gabe ekintza horiek guztiak antolatzen dituztenak; kolektiboki, elkarlanean, inolako irabazi asmorik gabe, beraz, badugu gure meritua”. Jende gutxirengana iritsi arren, “ez dugu horrekin frustratu nahi egun batetik bestera ez dira gauza guztiak lortzen. Poliki-poliki su txikian berotzen joan eta etengabeko lanarekin saiatuko gara. Jenderik etorriko ez balitz gu pertsona gisa errealizatuta sentituz gero, gure lanketarako balio badu, gu gustura”.

Asmoa ez da Sutegixa hasieratik erretzea, pixkanaka jendea epeletara gerturatu eta autokritikatik abiatuta sua denen artean bizi ziteza suaren bueltan denek batera lan egin dezaten.

## AZAROKO EKINTZAK

### 13 BARIXAKUA

**22:30** Zinegiro Goritan: *El misterio Galindez*.

### 14 ZAPATUA

**23:00** Kontzertua: Xiberoots eta Nahia x Matthys.

### 20 BARIXAKUA

**22:30** Zinegiro Goritan: *Fenix 11\*23*.

### 27 BARIXAKUA

**22:30** Zinegiro Goritan: *Te doy mis ojos*.

### 28 ZAPATUA

**10:30** Literatura tertulia: *Metamorfosis* (Kafka).

# Txikibarren

## Zer gertatuko litzateke erleak desagertuz gero?



**Lukene Revert**  
(Mendaro, 7 urte)

Erleak ezagutzen ditut pixka bat. Askotan ikusi ditut. Erleek ezitia egiten dute. Ez dakit erleak egotea ona ala txarra den. Ez dakit zer gertatuko litzatekeen desagertuko balira. Niri askotan egin dizkidate ziztadak. Baina ezitia jaten dut.

**Elene Arroitaonandia**  
(Mendaro, 7 urte)

Katarroa izaterakoan hobeto da esnea eta ezitia edatea. Hori eman zidaten eta orain hobeto nago. Egun batean, nire lagun batzuek asiaticak ikusi zituzten. Ni ez nintzen enpanatu eta beraiek hasi ziren korrika eta gero hasi nintzen korrika.



**Martin Agirrezabala**  
(Mendaro, 7 urte)

Erlauntza ikusi dut. Gertu ez, katalajoekin... Pikatu izan didate. Hiru lekutan! Beldur pixka bat ere badiet... Ezitia egiten dute eta niri ez zait gustatzen, baina nire anaiari bai. Asiako liztorrek eraso egiten diete erleei, eta orduan ezin dute ezirik egin. Nire anaia triste geldituko litzateke.

**Ainara Txurruka**  
(Mendaro, 7 urte)

Ez litzateke ezirik egongo. Ezitia egiten dutelako dira garrantzitsuak. Ezitia loreek barruan dutenarekin egiten dute, horiarenkin. Baina nik ez dut hartzen ezirik. Nik ez nekien Asiako liztorrek erleei eraso egiten zietenik. Nik ikusi nituen parkean.



**Teshale Zubiaurre**  
(Mendaro, 7 urte)

Gehiago ez da egongo ezirik. Ezitia jende guztiari gustatzen zaio eta akabo ezitia! Ez dakit zergatik diren hain garrantzitsuak erleak. Nik behin ikusi nituen suhiltzaileak Asiako liztorren habia bat kentzen.




**Garikoitz Egiguren**  
(Mendaro, 7 urte)

Eztia niri gustatzen zait, Colacaorekin batera edo kafesnearekin. Erleak desagertuz gero, ezirik ez litzateke geldituko eta erleen etxerik ere ez. Pikatu egiten dute baina ez dute pikatzen. Inoiz ez didate horrelakorik egin. Baina liztorrek, bai, aurpegian.





**Imanol Salegi** (biloba)



**Pedro Ansuategi** (aitona)

*Pixka bat lotsatia eta nahiko alai. Gainera, denekin ondo konpontzen naiz.*

**Nolakoa zara?**

*Besteek dakite hori neuk baino hobeto. Jenio pixka bat bizikoa, baina lotsatia gehiago.*

*Segun zertarako. Hondartzara joateko, eguzkia. Normalean eguzkia nahiago dut.*

**Zer nahiago duzu, eguzkia ala elurra?**

*Eguzkia nahiago. Elurra segun zer sasoitan den, aldea dago. Urtarrilean eguzkia hobe, elurra baino.*

*Herri txikia denez, ez dago arazorik autoekin, aparkatzeko-eta. Lasai bizitzeko leku bat da.*

**Zer da Mendarok daukan gauzarik onena?**

*Herrian bakea. Hemen bizi gara como dios. Gure kasa primeran. Bakea gauza ederra da, nire ustez!*

*Ez dauka gauza askorik. Txikia denez, beste leku batzuetara joan behar da gauzak erosteko.*

**Eta txarrena?**

*Gauza txar-txarrik ez dut apreziatzen. Txarrena, elkar ikusi ezina edo, pixka bat egoten da batzuetan.*

*Skate egiteko edo patinetarekin ibiltzeko pistaren bat jarriko nuke.*

**Alkatea bazina...**

*Besteek baino hobeto ez nuke gobernatuko. Besteak baino gehiago ez naiz ezertan.*

*Donostia edo Orio. Itsasoa dutelako eta herria polita direlako.*

**Zein beste leku aukeratuko zenuke bizitzeko?**

*Donostia niretzat da politena. Urrutira ez nintzateke joango: nahiago dut Donostiara Benidormera baino.*

*Janaria, ura eta nire familia.*

**Zer hiru gauza eramango zenituzke irla batera?**

*Dirua, badaezpada. Arropak, aldatzeko. Edari pixka bat eramatea ere, pixka bat hobe.*

*Handitan esku pilotari profesionala izatea.*

**Zerekin egiten duzu amets?**

*Neska gazte ederrenekin. Ametsik goxoenak haiexekin egiten dira!*





Bonuak  
agortu arte!!!

# TXANKAKUA

## ELGOIBAR 2015 AZAROA

### EROSKETA BONUAK ELGOIBARREN



#### Zer da zehazki erosketa bonua?

40 euroko kostua duen bonua da, 50 euroko balioa duten erosketak egiteko aukera ematen duena. Hau da, %20ko deskontu zuzena lortzeko aukera ematen du.

#### Zein da helburua?

Honen bidez, Elgoibarko merkataritzari bultzada eman nahi diogu eta Elgoibarko kontsumoa sustatu, berrindartu. Jar-duera komertzial txikiarentzako babesa bilatzen dugu bonuen bitartez, eta bezeroak fidelizatu nahi ditugu.

#### Edozeinek erosi ditzake?

Elgoibarren errolatutako pertsonentzako balio du. Bonu bana eskura daiteke NAN bakoitzarekin (indarrean dagoen helbidea behar du) edo errolatze bakoitzarekin.

#### Txankakua elkarteko komertzioetan aldatu daiteke bakarrik?

Bai. Bonua bakarrik aldatu daiteke Txankakua elkartearekin bat egiten duten establezimenduetan. Bonu osoa 50€-koa da eta bi bonutan banatuta dago, bakoitza 25€ko baliokoa. Horiek ezin dira zatikatu, hau da, erosketak beti izan beharko du 25€ edo gehiagokoa txartel bakoitzeko. Erosterakoan, baina, gehienez bi bonu oso bateratu daitezke, hau da, 100€ra arte.

#### Non erosi daitezke?

Azaroaren 2az geroztik, bonuak Rural Kutxan eskuratu ditzakete elgoibartarrek hilabetea amaitu artean edo bestela bonuak agortu artean. Oraindik gelditzen dira bonuak salgai. Beraz, %20ko deskontuaz baliatzeko gomendioa egin nahi dizuegu.

#### Honelako kanpaina bati ekiteko laguntzarik ba ote duzue?

Elgoibarko Udalaren laguntza dugu eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailarena.

TXANKAKUA Elgoibarko Merkataritza Elkartea.

Tfnoa. 943 74 73 01 - txankakua.elkartea@gmail.com

**50€-ko erosketa  
40€-ren truke.**

**TXANKAKUA**  
EROSKETA  
BONUA

**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO

EXONOMIAREN GARAPEN  
ETA LEHIAKORTASUN SAILA

ELGOIBARKO UDALA

**TXANKAKUA**  
ELGOIBARKO MERKATARIK



## Karakateko igoera zapatuan jokatu da



**M**orkaiko mendizale elkarteak antolatuta, Karakateko 22. igoera jokatu da bihar, azaroak 14. Lasterkariak 11:00etan abiatuko dira Kalegoen plazatik. Antolatzaileek gogorarazi dute bidea ez dela markatuta egongo eta norberak nahi duen lekutik igo ahal izango duela, beti ere baserritarrek jarritako itxiturak errespetatuz. Izen-emateak doan izango dira eta interesatuek aurrez ([morkaiko@morkaiko.net](mailto:morkaiko@morkaiko.net) helbidera idatzita) nahiz bihar bertan eman ahal izango duten izena, goizeko 10:00etatik aurrera. lazkoa errekorren edizioa izan zen. Iñigo Larizek bi segundoan ondu zuen aurreko urtean berak ezarritako errekorra, eta 27:37ko denboran laga zuen marka berria. Emakumezkoetan ere errekorra ondu zuen Nahia Quincoces lekeitiarrak (34:21).

## Lidergoa egongo da jokoan Viento Sur eta Atletico San Sebastianen arteko partidari



Viento Sur saskibaloia taldeak denboraldi hasiera aparta egin du. Saiklapeneko lehen postuan daude, orain arte jokatuak zazpi partidak irabazita, Atletico San Sebastian taldearekin berdinduta. Hain justu ere, elkarren aurka jokatu dute bi taldeek, gaur (azaroak 13), Olaizaga kiroldegian. 20:15ean hasiko da partida. Lidergoa jokoan izango da.

## Emaitzak

### FUTBOLA

Hernani 2 – Haundi 0  
Ikasberri 0 – Elgoibar 2 (1. erreg.)  
Bergara 3 – Elgoibar 1 (Jub.)  
Elgoibar 3 – Eibar 0 (A kadeteak)  
Elgoibar 6 – Burumendi 4 (B kadeteak)  
Ancaitasuna 2 – Elgoibar 0 (Ohorezko. inf.)  
Elgoibar 4 – Ilintxa 2 (Inf. Txiki)  
Elgoibar 7 – Orioki 1 (Aleb. errendimendua)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 7 – Zierbena 4 (2. B maila)

### SASKIBALOIA

Allerru SBT 40 – Viento Sur Elg. 61

### ESKUBALOIA

Lauko Elgoibar 22 – Tejina Tenerife 24 (Sen. emak.)  
Gure Auzune 29 – Alcorta Forging Group 30 (Sen. giz.)  
Gabaz 38 – Bergara 18 (Senior giz.)  
Zuazo 25 – Tecnifuelle 26 (Jub. mut.)  
Beristain banaketak 38 – Urola 18 (Jub. mut.)  
Zuazo 16 – Pneumax Elg. 26 (Kad. nesk.)  
Aiala B 16 – Casa Astigarraga 21 (Kad. nesk.)  
Oñati A 23 – Bankoa Elg. 30 (Kad. mut.)  
Deca Elg. 37 – Zarautz 15 (Kad. mut.)  
Dario Bus 44 – Oñati 6 (Inf. mut.)  
Cometel Elg 25 – Ikus 5 (Inf. nesk.)  
Zarautz B 30 – Hotel Txarriduna 10 (Inf. mut.)  
Murgil Elg. 17 – Pulpo 28 (Inf. mut.)

## Agenda

### PILOTA (Ikastolako frontoian)

Barixakua, 13  
19:30 Lagunak 1 – Legazpi (3. Maila)  
19:30 Lagunak – Atxurbide (2. Mailako gomazko paleta)

### SASKIBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Barixakua, 13  
20:15 Viento Sur Elgoibar – Atletico San Sebastian

### ARETO FUTBOLA (IMH kiroldegian)

Zapatua, 14  
17:30 Concepto Egile – Xota B (2.B maila)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 14  
11:00 Elgoibar – Bergara (Ohorezko inf.)  
16:30 Haundi – Beti Gazte  
18:30 Elgoibar – Ilintxa (Ohorezko jub.)  
Domeka, 15  
12:00 Elgoibar – Urola (Aleb. lagunartekoa)  
12:00 Elgoibar – Eibartarrak (Aleb. lagunar.)  
16:00 Elgoibar – Mutriku (1. erregionala)

### ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 14  
16:00 Astigarraga – Usurbil (Kadete nesk.)  
17:30 Bankoa – Pulpo (Kad. mut.)  
19:30 Alcorta Forging Group – Eibar (Senior giz.)  
Domeka, 15  
10:15 Ikus – Dario Bus (Inf. nesk.)  
11:30 Txarriduna – Amenabar (Inf. mut.)

### ESKOLA KIROLA

Zapatua, 14  
09:30 Saskibaloia, Herri Eskolan (Aleb.)  
09:30 Eskubaloia, IMH kiroldegian (Benj.)  
09:30 Eskubaloia, Ikastolan (Benj.)

# “Behobia-Donostia amaitu orduko banekien berriz errepikatuko nuela”

## ► CRISTINA VILLALOBOS SALTAKARIA

Cristina Villalobosek ordu eta erdian egin zuen Behobia-Donostia lasterketa, eta bera izan zen emakumezko azkarrena elgoibartarren artean. Sailkapen nagusian ere lehen 70 emakumezkoen artean dago. Sei urterekin hasi zen atletismoan eta luzera jauzian Euskadiko txapeldun izan zen gazte txotan. Iaz, 37 urterekin hartu zuen parte estreinakoz Behobian. Aurten goan 70 bat elgoibartarrek eta 21 mendararren amaitu zuten bero sargoriak baldintzatutako proba (sailkapenak barren.eus webgunean).

- ASIER ORBEA -

### ◆ Ordubete 30 minutu eta 26 segunduan osatu duzu aurtengo Behobia-Donostia. Gustura geratu zara egindako lasterketarekin?

Bai. Nire asmoa ordubete eta 25 minuturen bueltan ibiltzea bazen ere, egin zuen beroagatik ez zen izan markak egiteko egunik aproposena. Ondo entrenatuta joan nintzen eta nire burua gai ikusten nuen jarritako helburua betetzeko. Beroaz aparte, baina, beste arazo batzuk ere izan nituen. Ordularia blokeatu egin zitzaidan irteeran eta erreferentziarik gabe aritu nintzen korrika. Ez nago ohituta eta eragozpen handia izan zen niretzat. Helmugara iritsi nintzenean ordubete eta 28 minutuan egin nuela pentsatu nuen hango ordulariei begiratuta, baina handia izan zen desengainua ordu eta erdian egin nuela jabetu nintzenean.

### ◆ Bistan da oso lehiakorra zarela.

Bai, oso. Proba bat nik nahi



Arg.: Pic2Go/Fortuna



dudan moduan egiteko prestatuta ez bago nahiago dut ez parte hartzea. Horixe da nire izaera. Urduria ere banaiz. Adinarekin nerbioak baretzen ikasi dudan arren, lasterketa gehiagotan hartuko nuke parte horren urduria ez banintz.

◆ **Behobiara itzuliz, aurreneko postuetan sailkatu zara emakumezkoetan.**

6.000 emakumek baino gehiagok hartu dute parte aurten, inoiz baino gehiagok, eta lehen 70 sailkatuen barruan nagoela uste dut; eta 39. postuan senior kategorian. Afizionatu batentzat emaitza oso ona dela uste dut.

◆ **Beroa izan da aurtengo protagonistetako bat. Nola eragin zizun?**

Bero ikaragarria egin zuen. Antolatzaileek behin eta berriz ohartarazi ziguten amaitzea nahikoa meritu zela eta lagatzeko markak hurrengo edizioetarako. Hala eta guztiz, beroaren eraginez edo nekeak jota parte hartzaile bat baino gehiago ikusi nuen bide bazterrean. Eta okerrera izan zen 31 urteko gizon bat hil egin zela jakitea. Niri dagokidanez, argala naizenez eta gantz gutxi dudanez, beroarekin hotzarekin baino hobeto moldatzen naiz.

◆ **Iaz korrika egin zenuen estreinakoz Behobia-Donostian.**

Bai, 37 urterekin egin nuen nire estreinako Behobia. Nahikoa berandu, atletismoan sei urterekin hasi nintzela kontuan hartuta. Elgoibarren ia 16 urte badaramatzat ere, Ermukoa naiz eta hango San Lorentzo ikastetxean hasi nintzen atletismoan, kros lasterketetan. Gero, hainbat urte egin nituen federatuta Durangoko Bidezabal kirolaldean. Luzera-jauzian Bizkaiko eta Euskadiko txapelkun izan nintzen

## “Luzera-jauzian Euskadiko txapelkun izan nintzen behin baino gehiagotan”

tzen behin baino gehiagotan eta Espainiako lau txapelketatan ere lehiatu nintzen. Egindako markekin ez naiz oso ondo gogoratzen, baina metro bat eta 68 zentimetroko jauzia egitera iritsi nintzela uste dut. Zortzigarren postuan geratu nintzen Espainiako Txapelketa batean izan zela uste dut, 14 edo 15 urte nituela. 17 urterekin atletismoa laga nuen. Lagunak asteburuetan irteten hasi ziren sasoiaren. Bizitzako sasoi hori pasa ostean, berriz ekin nion kirola egiteari, igeriketa eta korrika uztartuz. Eta konturatzerako lasterketetan parte hartzen hasi nintzen. Herriko probetan lehenik, eta iaz bi maratoni erditan, Gasteizkoa eta Behobia-Donostia.

◆ **Zerk deitu zizun gehien arreta zure lehen Behobian?**

Izugarri gustatu zitzaidan. Egin nuen markagatik baino gehiago bizi izan nituen sentipenengatik. Gasteizko maratoni erdiak ez zidan laga halako aho gusturik. Behobiaren bueltan dagoen animazioa sekulakoa da: ezagutuko bazintuzte bezala animatzen zaituzten ikusleen animoak, zuzeneko musika eta Djak ibilbideko hainbat gunetan, mozorrotutako ikusleak... baina gehien-gehiena gustatu zitzaidana Boulevardreko ailegaera izan zen. Helmugako zuzena ederra da, itsasoa alboan eta azken ahalegina egitera

bultzatzen zaituen jendetza animoak ematen. Zirrargarria da. Amaitu orduko banekien berriz errepikatuko nuela.

◆ **Nola moldatzen zara entrenamenduetarako denbora izateko?**

Sakrifizio apur bat eskatzen du, bi ume ditudalako eta egunean zortzi ordu lan egiten ditudalako. Atletismo klub batek ni fitxatzeko interesa agertu du, baina nahita ere ezingo nintzateke niri gustatuko litzaidakeen moduan entrenatu. Uda sasoiaren 06:30ean esnatzen naiz korrika egitera joateko eta batek baino gehiagok esaten dit nola jaikitzen naizen horren goiz. Niregatik balitz 11:00etan joango nintzatekeela erantzuten diet, baina ez daukadala horretarako aukerarik. Honek ematen dit bizipoza eta kirolari eskaintzen dizkiot dauzkadan denbora libre tarte apurrak. Triatloia probatzera ere animatu naute, igerian eta korrika ondo moldatzen naizela-eta. Arazoa berbera da ordea: denbora falta. Eta gainera, bizikletan ez naiz oso ondo moldatzen.

◆ **Zeintzuk dira datorren urteei begira dituzun erronkak?**

Urrun ikusten dudan arren, maratoni bat egitea gustatuko litzaidake. Umeak pixka bat koskortzen direnean entrenatzeko denbora gehiago izatea espero dut, ondo prestatzeko. Izan ere, marka bat egiteko erronka jartzen diot nire buruari. Horrela ulertzen dut nik atletismoa, beti nahi dut hobetu. Lehen horrela zen eta era horretan hezi ninduten. Proba batean parte hartzen baren irabazteko zen. Hori bai, galtzen ere jakin egin behar da, kirolaren parte baita.



## 'Ederlezi' pastoralara izango da zapatu arratsaldean Herriko Antzokian

Herriko antzokiak Iparraldeko kultura hartuko du zapatu arratsaldean Herriko Antzokian. *Haizea dator Iparraldetik!* egitasmoaren baitan Ederlezi pastoralara egingo baitute.

Nicole Lagarouten zuzendaritzapean Mixel Etxekoparren testua duen antzezpena da pastoral hau. Bertsoak eta dantza tartekatuz XVII. eta XXI. mendeen artean Euskal Herrian bizi diren ama baten eta bere zazpi alaba ijitoen istorioa kontatzen du eta Amaren Alabak taldeko kideek eta Zuberoko gazte talde zabalak interpretatuko dute.

### Aktore eta musikari gutxiago

Pastorala Ipar Euskal Herrian oso sustraituta egon arren, oso gutxitan izaten da Hegoaldean horrelako ikuskizunaz gozatzeko aukera. Pastoral klasikoan herri bateko biztanle guztiek muntatzen eta antzezten dute funtzioa, baina gurera ohikoa baino txikiagoa



Arg.: daniza.eus

ekarriko dute. Aktore eta musikari gutxiago izan arren, pastoreleko legeak mantenduko dituzte.

Euskara, euskal kultura eta Euskal Herriko tradizioak gustuko dituztenentzat ezinbesteko hitzordua izango da. Zapatuan, azaroaren 14an, 17:30ean, Herriko Antzokian. Sarrerak 5 eurotan salduko dituzte egunean bertan.

### Kontzertua Sutegixan

Bestalde, egun berean, 23:00etan Sutegixa gaztetxean Iparraldeko Xiberoots eta Nahia x Matthys musika taldeek kontzertua emango dute. Reggae doinuak jorratzen ditu Xiberoots talde zuberorarrak. Nahia Zubeldia eta Manu Matthysek, berriz, elektro folk nahasketa egingo dute.

### Sastarrain baserri-eskolan 72 lagun Atxutxiamaikarekin

Irteera antolatu zuen zapaturako Atxutxiamaikak eta eguraldi ona aprobetxatuz 72 lagun inguru –haur, guraso eta begirale– joan ziren Sastarrain baserri eskolara eta Ekain Berrira. Ukuiluan eta oilategian animaliei jaten eman eta hauek garbitu zituzten eta zaldi gainean ere ibili ziren. Ekaingo kobazuloaren erreplika eta erakusketa ere ikusi zituzten. Hurrengo irteera abenduaren 12an egingo dute Olentzeroren etxera.



### Bihar da Egur arte tailerreko ikasleen lanak ikusteko azken eguna

Kultur Etxean daude ikusgai Egur arte tailerreko ikasleek egindako lanak. Kolorez jantzi dute erakusketa aretoa umeek egindako autoerretatuekin eta banderatzuekin. Nagusiek oleoak eta labeko esmalteak egin dituzte. Oraindik joan ez direnek gaur, barixakua, eta bihar, zapatua, izango dute erakusketa bisitatzeko azken aukera. 18:30etik 20:30era bitartean egingo da irekita.





# Santa Zezilia eguna dela-eta musika emanaldiz jantziko dute Elgoibar datorren asteburuan

Azaroaren 22a da Santa Zezilia, musikarien zaindariaren eguna. Hori dela-eta barixakuan, azaroaren 20an, hasita musika jarduerak egingo dituzte herrian.

Ostiralean, 08:30ean, diana egingo dute Elgoibar Ikastolako ikasleek Kalegoen plazatik abiatu eta ikastetxera artean. Lehenengo eta bigarren mailakoak kantuan joango dira, hirugarrenekoak eta laugarrenekoak marakak eta turutak jotzen eta bosgarrenekoak txirulekin. Gainera, Musika Eskolan instrumenturen bat jotzen ikasten ari direnek osatuko dute taldea. Guztira 440 haur inguru izango dira. Arratsaldean, berriz, Inazio Bezeziartua Musika Eskolatik abiatuko da txaranga txikia 18:00etan eta kalejira egingo du. Baina ez dira barixakuan bukatuko Santa Zeziliaren omenezko ekintzak Musika Eskolan. Astelehenean, hilaren 23an, trikitalariak arituko dira 18:30ean, eta ondoren, 19:00etan kontzertua izango da auditorioan. Ekitaldi hori aprobetxatuko dute aurreko ikasturtean bosgarren ikasturteko bigarren maila gainditu zutenei diploma bana emateko.

## Bandak omenaldia

Elgoibarko Udal Musika Bandak domekan, Santa Zezilia egunean bertan kontzertu berezia eskainiko du. Goizean 09:45ean kalejira egingo dute eta 12:30ean izango da kontzertu nagusia Herriko Antzokian.



Eduardo Borrás pasodoblea, *Appalachian Overture*, *Rock Symphonie*, *Old Comrades* eta *Danzon N°2* izango dira eskainiko dituzten piezak.

Kontzertua zaindariaren omenez ez ezik, aurten beste norbaiten omenez ere egingo du Udal Musika Bandak. Izan ere, 50 urte dira Luis Maria Zubiaurre Lodoso klarinetejolea bandan hasi zela eta bera omenduko dute kontzertuan.

Horrez gain, Udal Musika Bandako hildako kideen aldeko meza ere izango da azaroaren 21ean 19:00etan San Bartolome parrokiaren.

## Emakumeen argazki lehiaketa amaitzeaz

Haizea emakume taldeak argazki lehiaketa jarri zuen abian. Parte hartzaileak ezezik gaia bera ere emakumea da, baina Elgoibar eta kulturarekin lotuta. Azaroaren 16a, astelehena, da argazkiak bidali edo eramateko azken eguna. Pitxintxu dendara eraman edo [haizeataldea@gmail.com](mailto:haizeataldea@gmail.com) helbidera bidali behar da argazkia. Emakume bakoitzeko argazki bakarra onartuko dute lehiaketan. Saria, Gabi jatetxean, bi lagunentzako afaria izango da. Haizeako lau bazkidek, Udaleko ordezkari batek eta ongarriko kide batek osatuko dute epaimahaia. Aukeratutako irudia Haizeako bazkideak zoriontzeko postaletarako erabiliko dute.

## Txirri, Mirri eta Txiribiton domekan

*Txutxupe* ikuskizuna eskainiko dute Txirri, Mirri eta Txiribiton juniorrek domekan, azaroaren 15en, Herriko Antzokian 16:30ean. Ordubeteko *Txutxupe* ikuskizunean jolasa izango da protagonista, jolaserako gonbitea egingo dute pila-zoek eta kantuz jantziko dituzte jolas horiek. Txirri, Mirri eta Txiribitonek ezagun egindako *Altza Pelipe* bezalako abes- tiez gain, kanta berriak ere eskeiniko dituzte: *Txutxupe* eta *Zenbat kilo itsusi?*, esaterako. Sarrerak aurrez eros daitezke [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean eta saldu ezean lehiatilan egongo dira salgai egunean bertan. Umeen sarrera 3,5 eurokoa izango da, helduena, berriz, 5 eurokoa.

## Jardunaldi mikologikoak asteburuan

Karakate mikologia elkarteak egunean hasi eta astelehenera bitartean jardunaldi mikologikoak egingo ditu aurten 40. urtez. Egunean, azaroaren 12an, perretxikoei buruzko hitzaldi batekin hasi ziren jardunaldiak. Gaur (barixakua) eta bihar (zapatua) perretxikoekin egindako pintxoak jateko aukera izango da Elgoibarko 20 tabernatan, arratsaldez. Ondoeekin eta txanpinoiekin egingo dituzte pintxo gehienak. Domekan, 11:00etan irekiko dute perretxiko erakusketa, Kultur Etxeko sotoan. 13:30ean opari zozketa egingo dute umeen artean eta zozketako bisitarien artean. Astelehenean bukatuko dira jardunaldiak eskola umeek erakusketa bisitatuz.

**LANA.....****Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest, orduka edo etxean bertan bizita. 602 107 411

Adinekoak eta umeak orduka zaintzeko prest. Gauzez ere bai. 631 417 995

Garbiketa lanak egin eta adineko pertsonak zein umeak zaintzeko prest. 943 748 899 / 685 724 861

Garbiketa lanak egiteko zein adineko pertsonak zaintzeko prest. 638 338 816

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest, etxean bertan bizi izaten. 631832 767

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketa lan egiteko prest, etxean bertan bizi izaten edo orduka. 632 229 972

LHko eta DBHko ikasleei eskola partikularrak emateko prest. 615 768 310

Sukaldari laguntzaile edo etxe, portal eta elkarateak garbitzen lan egiteko prest. 636 882 838

Nagusiak zein umeak zaintzeko edo taberna zein portalen garbiketa egiteko prest. Nagusi ezinduekin eta elbarrituekin esperientzia daukat. 631 562 380

Garbiketa lanak egiten ditut orduka. 637 102 725 / 943 744 033

Nagusiak zaintzen ditut etxean zein egoitzetan edo ospitalean, arratsaldez zein gauzez. Gida baimena daukat. 631 343 232

Portalak garbitzeko prest. 617571210

Orduka edo etxean bizita lan egiteko prest, asteburuetan ere. 626 914 904

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketa lan egiteko prest. 631 748 977

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketa lan egiteko prest. 632 454 417

Adinekoak zaintzen edo garbiketa lan egiteko prest. 690 134 485

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbitasun lanak egiteko prest. 685 771 734

Adinekoak edo umeak zaintzeko, plan-txa egiteko, sukaldari laguntzaile lan-rako edo portalak garbitzeko prest. 631 562 380

Garbiketa eta sukaldari laguntzaile lan-tarako edo umeak eta adinekoak zaintzeko prest. Kanean zein baserrietan. 602 146 153

Umeak zein nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo etxean bizita. Taberna eta portaletako eskaierak ere garbitzen ditut. 631 098 995

Auto eta kamioi mekanikari, soldatzaile, iturgin -ur instalatzaile karnetarekin- lan-tarako prest. 602 343 815

Garbitzaile, gozogile edo jostun lan-tarako prest. 602 346 336

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lan-tarako prest. 638 338 816

Adineko jendea zaintzeko prest. 631 832 767

Adinekoak egunez eta gauzez zaintzeko, sukaldari-laguntzaile edo garbiketa lan-tarako prest. 637 074 529

24 urteko mendarora astegun arratsaldeetan haurrak zaintzeko prest. 646738095

Garbiketa edo ume zein adinekoen zaintzan lan egiteko prest. 632 889 041

Umeak zaintzeko, interna moduan gauzez edo orduka jarduteko prest. Esperientzia handia. 631832388

**Eskaerak**

Doitze eta muntaia mekaniko lanetan ibilitako persona behar da. Bidali curriculum-a Zarauzko 309 Posta Kutxatilara.

**ETXEBIZITZAK.....****Alokairua**

Familia batek bi logelako etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren. Gehienez 400 euro ordain ditzakegu. 637 207 806

Familia batek hiru logelako etxebizitza hartuko luke alokairuan Elgoibarren. 632 198 561

Etxe txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 632 175 172

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. 677 259 560 / 661 064 027

**Salmenta**

Babes ofizialeko etxebizitza salgai lñi-gez Karkizoo kalean. Oso egoera onean, ia erabili gabea. 75 metro koa-

dro, 3 logela, 2 komun eta altzariekien guztiz jantzia. Bizitzera momentuan sar-tzeko. Trastelekua eta garajea barne. 679387935 (arratsaldez-Leire).

Babes ofizialeko etxebizitza salgai, pre-zio tasatua (130.000€ inguran). 2 lo-gela, garajea, trastelekua eta igogailuarekin. 628 115 677.

San Bartolome kaleko eraikin berri ba-tean etxebizitza salgai. Bi logela, egon-gela-jangela, sukalde zabala eta bainugela. 625 708 042

**GARAJEAK.....****Alokairua**

Garaje itxia alokagai Jausoro plazan. Prezioa 90€. Koixe bakarrarentzat ego-kia. 699 812 566.

**Salmenta**

Garajea salgai Sigmako industriagu-nean, Antxustegi parean. 28 m2 goiko ganbararekin. 651 525 602.

**BESTELAKOAK.....**

Lur saila erosi edo alokatuko nuke oi-lategiarekin. 943 740 318

Trio Jane Carrera aniversario salgai. Oso egoera onean. Kolorea: Urdin iluna. Grupo O kapazua eta aulkia, bakoitza bere zaku eta plastikoarekin salgai. 686 474 208

Duela bi aste, urriaren 2an, Aterpe ta-berna parean aurkitutako txirula bat ekarri digute. Galdu duena BARRENE-tik pasa daiteke jasotzera.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



### **Zein da guztiena den erabilera pribatiboko elementu batek eragindako kalteen erantzule?**

Horrelako kasuak, esaterako, terraza edo patio komunak jabe batek modu pribatuan erabil-tzen dituen izaten dira. Beti ere erabiltzeko baimena eman zaionean komunitate-estatutuen edo komunitate-akordio baten bidez.

Kasu horietan aztertu beharko da nori dagokion kaltea eragin duen elementuaren mantentze-lana. Izan ere, horren arabera erabakiko da nork ordaindu beharko dituen konponketa gastuak.

Arau orokorreari erreparatuz gero, elementu komuna erabiltzeko eta gozatzeko aukera eskuratu duen jabeak beharrezko mantentze-lanak egiteko ardura izango du elementu horren erabilerak eragindako higadurari aurre egiteko. Komunitateak, berriz, konpondu eta mantendu beharko ditu, ez erabilerarengatik, baizik eta, eraikina-ren egitura zahartu delako kaltetu diren elementuak. Adibidez, terraza batean, jabeak mantendu beharko du erabiliaren erabiliz gastatu den zola. Komunitateak, berriz, inpermeabilizazio konponketa eta mantenua ordain-du beharko ditu, egiturazko elementua delako eta zahartzea ez delako terrazaren erabilerak soilik eragin.

**Aholkua: Impermeabilizazio-egitura hondatu delako ura sartu eta beste etxebizitza batzuetan kalteak eraginez gero, komunitateak konpondu beharko luke. Baina gunea erabiltzea baimendu zaion jabeak zaindu ez duelako hondatzen bada inpermeabilizazio-geruza, bera arduratu beharko da kalteak konpondu eta ordaintzeaz.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Al-cala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749







Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Irati**, igandean 9 urte beteko dituzu-eta. Etxeko eta bereziki Maialenen partez!



Zorionak, **Naiara**, Gure printzesak 9 urte beteko ditu! Muxu handi bat gurasoen partez.



Zorionak, **Unax**. Gaur 4 urte. Ondo pasa zure urte betetzeguna. Muxu handi bat etxeko partez.



Zorionak, **tia Itziar**. Urtetan gora eta gaur bezain guapa bihar. Patxo handi bat. Ondo pasa zure egunian zihar.



Zorionak **Ane Sotari**. Hilaren 15ean 15 urte. Familia guztiaren eta bereziki guraso eta ahizpa Noraren partez.




Zorionak! Jadanik 18ak gertu dituzul! Amaren eta aitaren partez, ondo pasa zure urtebetetzeguna.



Ongi-etorri gure artera, **Maialen**. Aitxixa eta amamen partez.



Zorionak **Ibon!** Larunbatean 4 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat aitaitxo, amatxo eta laidaren partez.



Ongi etorri **Gorka** gure zazpigarren bilobatxoari. Aitxixa-amama eta bereziki Julenen partez muxu handi bat.



Zorionak, **Peru eta Elene**. 2 eta 7 urte, ai ene! Zuentzako patxo bana danek. Tio eta tiek, aittittek eta amamek.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.

# ELGOIBAR

Herriko Antzokia

Azaroak 14, larunbata

17:30

## EDERLEZI PASTORALA

Gavean,  
Gaztehean,  
kontzertua:  
**Nahia x Matthys**  
eta  
**Xiberoots**

## 13 BARIXAKUA

**Iluntzean** Perretxiko pintxoak. Elgoibarko tabernetan barixakuan eta zapatuan. 40. jardunaldi mikologikoak.

**17:30-20:00** Argazki erakusketa: Debabarreneko fauna ezkutua eta landare ezezagunak. Barixakutik domekara. Mendaroko Lagun betikoaren aretoan.

**20:30** Antzerkia: *Caperucita feroz*. Herriko Antzokian.

## 14 ZAPATUA

**10:00** Ibilaldia: *Zuhaitzen hitza, baso magikoak*. Kilimonen barrena. Irteera: Mendaroko plazan.

**11:00** Libre asteburua: Karakate laranjaz jantzi; 13:00etan, askeguna Kalegoen plazan: material salmenta eta atxikimendu bilketa; 13:30ean, kontzentrazioa: *Eskubide zibil eta politikoaren defentsan, Zinku eta besteak libre*; 14:00etan, argazkia.

**11:00** Karakateko igoera. Antolatzailea: Morkaiko ME Kalegoen plazatik.

**12:00-14:00** Magosto jaia. Antolatzailea: Galiza Etxea. Leku Eder plazan.

**17:30** Ederlezi pastoralara. Herriko Antzokian. Sarrera: 5 euro.

**23:00** Nahia X Matthys eta Xiberrots. Sutegixa gaztetxean. Sarrera: 3 euro.

## 15 DOMEKA

**09:30** Mendi irteera: Gatzagatik Hiruerreketara. Deba ibaiaren iturburura. Antolatzaileak: Morkaiko, Herri Eskolako Kalamua Elkarte eta Ikastolako Guraso Kontseilua. Irteera: Mintxetako aparkalekuan.

**11:00** Perretxiko erakusketa. Kultur Etxeko sotoan. Jardunaldi mikologikoak.

**13:30** Oparien zozketa. Kultur Etxeko sotoan. 40. Jardunaldi mikologikoak.

**17:00** Umeentzako tailerra: Hazizko **16:30** Antzerkia: *Txutxupe*. Txirri, Mirri eta Txiribiton junior. Herriko Antzokian.

**17:00** Umeentzako tailerra: Hazizko bonbak. Mendaroko plazan.

**18:30** Dokumentala: *Baso ahaztuak*. Mendaron

## 16 ASTELEHENA

**19:00** *Epeletan* literatur tailerra. Jasone Osororen *12etan bermuta*. Liburutegian.

## 18 EGUAZTENA

**12:00** Enpresa Industrialen gazteen-tzako ideia lehiaketako sari banaketa. Antolatzailea: IMH. Udaletxean.

**19:30** Mendi emanaldi zikloa. *Mendizaletasuna: bizitza estilo aktibo eta osasuntsu baten oinarri*. Unai Arrieta.

## 19 EGUENA

**18:00-20:00** Gurasoentzako ikastaroa: *Autoestimua sendotzen. Guztion erronka*. Azaroaren 26an eta abenduaren 3an eta 10ean ere. Irakaslea: Teresa Alonso. Kultur Etxean. Izen-ematea: [kalamua@googlegroups.com](mailto:kalamua@googlegroups.com). Azaroaren 16a baino lehen. Antolatzailea: Kalamua guraso elkarte.

**21:00** Mendi emanaldi zikloa. *Andrak Mendixan!* Marimendi eta Mendikolore. Musika Eskolako auditorioa.

## 20 BARIXAKUA

**08:30** Elgoibar ikastolako ikasleen kalejira. Kalegoen plazatik Ikastolara.

**17:30** Txaranga txikiaren kalejira. Musika eskolatik hasita.

**21:30** Bideo forum-a. *La verdad de Soraya M*. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Haizea. Koordinatzailea: Loredi Salegi.

## Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

**09:00 - 22:00**

13 Barixakua IBAÑEZ

14 Zapatua GARITAONANDIA

15 Domeka GARITAONANDIA

16 Astelehena ETXEBERRIA

17 Martitza FERNANDEZ

18 Eguaztena YUDEGO

19 Eguena ORUESAGASTI

20 Barixakua BARRENETXEA

**22:00 - 24:00**

Astelehenetik domekara  
GARITAONANDIA

**24:00 - 09:00**

ELORZA (Eibar)

Juan Gisasola, 18 - 943 206 100

\* Fernandez: Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9  
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

## Zinea (Herriko Antzokian)



### 'Marte'

14 Zapatua 22:15 (VOS)

15 Domeka, 19:00

16 Astelehena, 21:30

### 'Yo, el y Raquel'

19 eguena, 21:30





Industrias METALA, familia-enpresa bat da, 1965ean Pedro eta Fermin Zubiaurre anaiek sortutakoa.

Inguruko industriaren gorakada zela eta, merkatuaren beharrak asetzeko, pieza berezien fabrikazio-ari ekin zioten. Denborarekin negozioa handitzen joan ziren, produktu pneumatiko eta hidraulikoak komertzializatuaz.

Euskal Herrian, aurrenetariko enpresa izan zen ISO 9001 kalitatezko zertifikatua lortzen. Bestalde, marka propioa zertifikatu zuten (METALA) DIN 2353 arauaren menpeko errakoreentzako, Bureau Veritas Type Approvalaren bidez.

Fabrikatzen eta komertzializatzen dituzten produktak sektore anitzetara zuzenduta daude, besteak beste: erreminta-makina, ontzigitza, tren industria, energia berriztagarriak, obra publikoak, aeronautika, industria kimikoa...

Gaur egun bi negozio lineatan lan egiten du:

- Mekanizatua.
- Produktu hidrauliko eta pneumatikoen hornikuntza.

Aurten 50 urte betetzen ditu, eta hirugarren belaunaldiaren zuzendaritzapean dago.







Iñigo Lamelas



### Jose Luis Azpillaga



Aspalditik nuen gaztetan egin-dako ibilaldi neurtu hura berri-tzeko gogoa. Oroitzen nuen zortzi bat orduan egin nuela garai har-tako Azpeitiko mendizaleekin. Ez ge-nuen egunik aproposena aukeratu, ordea, mendi buelta luze hura egiteko. Azpeititik Xoxotera aise igo ginen emaztea eta biok goizeko giro freskoa lagun, bide ezagunean gora, patxadaz. Xoxotetik behera jo eta gorantz zetozen familiarekin gurutzatu ginen. Otarrera jaitsi eta mokadu bat jatea zen gure asmoa. Halaxe egin genuen. Harritu gintuen hango giroak: argi zegoen gehienak autoz igota zeudela, ez zuten mendizale itxurarik. Otarretik Azkarateruntz jo genuen eta ordurako eguzkia ederki berotzen hasia zen. Azkaratetik berriz ere gorantz, Hirukurutzetarantz, eta gu jada eguzkitik ihesi,

gerizpe bila bide ezezagunean gora. Ez ginen nahi baino lehen iritsi tontorrera. Bero handia zegoen, eta ura ere eskas genuen ordurako. Beste mokadu bat jan eta atseden hartu ge-nuen gozo-gozo etzanda tontorretik gertu dagoen pinudian. Ondoren, Karakatarantz jo genuen. Sei bat ordu eginda, han-ketan nekea igartzen hasiak ginen, eta egunak bero, sargori, jarraitzen zuen. Karaketara iritsi eta beherantz jo genuen Elgoi-barrerantz. Halako batean San Roke bistaratu genuen, hura poza! Josurekin gurutzatu ginen: bakarrik zihoan gorantz, beti bezain alai. Azkenean behintzat San Rokera heldu ginen, eta, orduan, ezustean, San Rokeko aska eta iturria agertu zitzaizki-gun begien aurrean, iturriak gainean ontzitzo bat zuela, ur gozoa edateko gonbita eginez bezala. Ez dut ahaztekoa or-duan edandako ur zurrutadak eman zidan freskatua! Eskerrik asko iturria zaindu eta edalontzia jartzen duenari!

*“Eskerrik asko San Rokeko iturria zaindu eta edalontzia jartzen duenari”*



# MUNDUAREN AZKEN MUTURREKO EROSLEA

 **EROSKI** online  
zurekin



EROSKI online Supermerkatuan lurraldearen %100era iristen gara eta Euskadiko eta Nafarroako landatar eremu guztietan ematen dugu zerbitzua. Zauden lekuan zaudela ere zurekin egoteko, zure munduaren, gure lurraldearen azken muturrean egonda ere.

[eroski.es](http://eroski.es)

lurraldearen  
**%100**   -era  
iristen gara





# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktoroa

Odontologian Lizentziatua.  
Euskal Herriko Unibertsitatea.  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, Inplantologian.  
Leongo Unibertsitatea.  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
Bartzelonako Unibertsitatea.  
Hortz-Estetikan Diplomatusa.  
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.  
Aurten Institutua, Bartzelona.  
Etengabeko Formakuntza.  
New York-eko Unibertsitatea.  
Oklusioan Graduondoa.  
Anibal Alonso Doktora.

Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:

10:00etatik 14:00etara

# Familiaren Osasuna

## Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal  Eta twitterren: @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario ezin hobekak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)